



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektua diseinatu ondoren, funtsezko elkartek definitu behar dira, hau da, Étagère-ren egitura aurrera eramateko jarraitu beharreko pausuak zehaztea.

Gure produktua ekoitzi ahal izateko, bost osagai nagusi hartu behar ditugu kontuan: xafla, imana, bozgorailua, jarraibideak eta pegatinak.

Honetarako, bi enpresekin kolaborazio bat egingo dugu. Alde batetik arotz batekin egingo dugu kolaborazioa, zehazki Errenteriako Agomar enpresarekin. Bestetik, beste kolaborazioa Hostoak enpresarekin egingo dugu, haien eskutik inprimatuko baititugu xafla erosi eta etxera eramatekoan haren muntaia osatzeko egin beharreko jarraibideak. Beraz, esan dezakegu bi azpi-enpresa kontratatuko ditugula gure proiektua aurrera emateko. Kontratatutako azpi-enpresekin xaflaren ezaugarriak adostuko ditugu, gure baliabideek hauen ekoizpena baldintzatuz.

Elektronika atalari dagokionez, bozgorailu bat txertatuko diogu, musika hobeto entzuteko. Bluetooth bidez konektatzeko aukera ere badu Étagère-k. Piezak guk erosiko ditugu, eta ondoren arotzari emango dizkiogu berak egur xaflak moztu ondoren bertan txertatu ditzan. Étagère osatzeko behar ditugun piezak Amazon enpresatik erosiko ditugu, eta beraien garraio zerbitzuak zuzenean arotzarenagana eramango ditu.

Komunikazio arloari buruz, gure enpresa eta Étagère ezagutzera eramateko, instagram eta facebook kontuak sortzeaz gain, hainbat “influencerren” zerbitzuak kontratatuko ditugu, beraiek gure produktua sare sozialetan erakusteko eta bere erosketa sustatu dezaten. Bestalde, informatikari bat ere kontratatuko dugu, web-orrialdea sortzen laguntzeko.

Jakina, honek irabazietan eragina izango du, eta - azpi-enpresa honi ordaindu behar zaio. Beraz, gure enpresen artean antolatzeke eta gure dirua kudeatzeko, enpresaren jabe eta bazkide den Nerea arduratuko da.

Denda fisikoari dagokionez, guk Errenterian denda bat irekiko dugu, eta bertan gure produktua erosteko aukera egongo da, nahiz eta gure interneteko web gunearen bitartez, hau espainian zehar erosi daitekeen. Baina gure web orrialdetik sartzen diren bezeroei erositako zerbitzuaren bidalketa egiteko, funtzio hau egiteaz "Insausti garraioak SA" izeneko enpresa arduratuko da. Hori bai, geroz eta bezero gehiago ditugula ikusiz gero, bai produktuaren interneten bidezko salmenta eta denda fisikoan erosteko aukera aregotu egingo genuke, denda fisiko gehiago irekiz edo interneteko aukera mundu osora zabalduz.

